

BERTSOAK / E KATEGORIA
Izengoitia: KATAXULO
Doinua: *Norbere mundu intimo*

HAINBAT MUNDU INTIMO

-I-

Sila hontan eserita
igarotzen dut eguna
Gaurkoan jakinarazi
nahi dut barruan dudana
Gutun honen arrazoia
elbarrituaren zama
ta kalean jende asko
ibiltzen da hara-hona
Hori ikustea baita
niretzako gaur zailena
zuk hau irakurtzerako
ni egongo naiz joana
Bizia atzean uztea
horixe da nahi dudana
Ez baitit ezerk betetzen
barru-barruko hutsuna.

-II-

Inoiz ez nuen pentsatu
egoera hain zailean
aurkitu nintekeela
alaba bat izatean
baina aita non dagoen
galdetzen dun bakoitzean
mutututa geratzen naiz
erantzuna pentsatzean
Lagunek, gelakideek
denek dituzte atzean
gizona, emakumea
aita-amen paperean
Zuk gurasoak bai, baina
bi zati egin beharrean,
bai aita eta bai ama
biak dituzu batean.

-III-

Enpresa multinazional
batean lan egitea
dakarren gauza txar bat da
ordu gehiegi sartzea
Gorputz huts bat bihurtu naiz
hotza ta bizigabea
Eguneroko rutina
orain zait zentzugabea
Betiko nire ametsa
izan da aberastea
Behin lortuta nahiago dut
bizi arrunta izatea
Beraz, bihartik aurrera
pentsatu dut hau uztea
Lanik onena da, baina
hobea da bizitzea.

-IV-

Nire seme ta alabek
zaharra naizela diote
ta nire iritziz behintzat
laurogei ez da hainbeste
Zahar-egoitza batera
laster eramango naute
horrentzako erantzuna
ezetz dela badakite
Haien etxean edozer
lasai egin dezakete
Nik ere nire etxean
badaukat nahiko aginte
Nire erabakia da
eta onartu behar dute
Ez naiz hemendik joango
guztiz hiltzen naizen arte.

-V-

Edozein herritik urrun
mendi puntan dagoela
lursail eder bat daukat nik
borda bat bertan duela
Ozpindutako gizona,
bakartia ta ustela
ez al dakite beraiek
bezalakoa naizela
Denei egia aspaldi
esan behar nizuela
Nire landare, abere
ta mendia bat garela
Zibilizaziotik at
pozik nago, dena dela
paradisu txiki hauxe
ez dut aldatuko bela.

-VI-

Elbarri dagoen nexka,
Bizia galdu duena,
Ama den emakumea
horretan da abilena.
Baita enpresadun gizon
lanaren esklabo dena,
Baserritar gaztea da
mendian zut dirauena
Eta ez dezagun ahaztu
sendiko aitonarena
Zerbait bada desberdindu
eta lotzen dituen
Mina eta poza eman
ditzakeen sentipena
Guztien bizitzan dago
maitasunaren eskema